



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 18a

20. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—1/2016 Foru Legea, urtarrilaren 29koa, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikuek lagunduriko suizidioa eta eutanasia arautuko dituen lege bat taxutu eta gara dezan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaion Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko. Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak onetsia (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (7. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

1/2016 Foru Legea, urtarrilaren 29koa, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Foru Legean akatsa atzeman da. Legea 2016ko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egin da aipatu foru legean:

31. orrialdean, bigarren taularen azpian, hauxe dioen lekuan:

“Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak astean **25** eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.”

Honakoa behar du:

“Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak astean **23** eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu dira.”

Iruñean, 2016ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikuek lagunduriko suizidioa eta eutanasia arautuko dituen lege bat taxutu eta gara dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da medikuek lagunduriko suizidioa eta eutanasia arautuko dituen lege bat taxutu eta gara dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du eutanasiarako eta suizidio lagundurako eskubidea arautuko duen lege bat presta eta gara dezan".

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lana banatzea bultzatzeko bideak azter ditzan (barne-plangintza hobetzea, lanaldia doitzea edo murriztea, aparteko orduak deuseztatzea, aurretiko erretiroa hartzea eta errelebo-kontratuak

egitea), ateratzen diren ondorioak geroago Parlamentu honi aurkezteko.

2. Azterlan bat egin dezan administrazioan lana banatzeko aukerei buruz, baita haien gauzatze aukerei buruz ere, eta 39/2014 Foru Dekretua aldatzea, Funtzio Publikoaren Mahaiko sindikatuekin bat.

3. Nafarroan lanaren banaketari buruzko biltzar bat antola dezan, kreditatutako adituekin, arrakastari buruzko esperientziak zabaltze aldera, behar den lege-esparrua sortzeko, Gizarteko Laneko Departamentuaren, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta interesa duten beste eragile batzuen lankidetzara edukita".

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lan-mahai bat sor dezan, Uholde-arriskuari buruzko plan bat abian jartzeko"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Lan-mahai bat sor dezan, zeinean Ebroko Konfederazio Hidrografikoa, toki entitateak, neka-

zariak eta ureztatzaile-elkarteak ere egonen baitira ordezkaturata.

2. Urgentziaz aurkez dezan Uholde-arriskuari buruzko plan bereki bat.

3. Lan egin dezan eremu urperakorretan, aseguru azkar eta zaluetan, eta ukitutako lurzatiei balio-galera balora dezan.

4. Erabaki adostuak har ditzan ibaiak garbitzeko eta mantentzeko, eta legarrak ateratzeko erabilera tradizionalak baimendu ditzan"

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatuko Gobernuari eska diezaion Espainiako Trafikoko Buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko"

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Estatuko Gobernuari eska diezaion, Barne Ministerioaren bidez, Espainiako trafiko buruzagitza guztien arauak eta irizpideak bateratzeko

2. Nafarroarako aztertzaile-plantilla finkoaren egoera azter dezan, bai eta ikastetxeetan zirkulazio-hezkuntza zertan den ere"

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroan klima aldaketari aurre egiteko plan estrategiko bat taxutu dezan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Agerraldi boluntario baterako eskaria eginez parlamentu honetan aurkez ditzan sinatutako akordioan jasotako konpromiso zehaztuak.

2. Klima-aldaketaren aurkako Nafarroako plan estrategiko bat egin eta Parlamentu honetan 2017aren erdialdea baino lehen aurkez dezan, eta plan horrek Nafarroako gizartearen parte-hartze zabala izatea.

3. Plan estrategiko horrek bere garapenerako aurreikuspen bat jaso dezan, bai eta honako arlo hauei buruzko plan sektorialetako neurrien aurrerapen bat ere: energia garbien ekoizpena eta efizientzia energetikoaren sustapena; trafikoa eta garraioa; baliabide naturalen babesa eta hondakinen gutxitzea; energia-ereduaren aldaketan oinarritutako ekonomiaren sustapena eta teknologia; bai eta ekimen honetan funtsezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak ere, eta horiek guztiak Nafarroako Foru Komunitatearen eskumenen esparruan.

4. Plan horrek adierazle batzuk proposa ditzan, Nafarroako Gobernuak emisioen gutxitzea dela eta sinatuta dauzkan helburuen jarraipena ahalbidetuko dutenak".

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen du Altsasuko Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak Adimen Osasunaren sarean erreferentzia zentro gisa daukan garrantzia, eta bertan ematen den zerbitzua balioesten du, zerbitzu publiko ezinbestekotzat jotzen duelarik".

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2016ko otsailaren 11n egindako Osoko Bilkuran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Estatuko Gobernua premiatzen da Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernua premiatzen du Garoñako zentral nuklearrari ez diezaion ustiapen-baimen berririk eman, eta hura eraisteko prozesuari ekin diezaion berehala.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Estatuko Gobernua premiatzen dituzte eredu energetiko berri baten aldeko apustua egin dezaten, energia produktibo, jasangarri, garbi eta seguruak lehenetsiko dituen.

3. Nafarroako Parlamentuak Segurtasun Nuklearreko Kontseilu Nagusiko lehendakariaren agerraldia eskatuko du, zentralaren egoerari eta etorkizunari buruz informaziorik eman dezan."

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaion Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko.

HERRITARREKIKO ETA ERAKUNDEEKIKO HARREMANETAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordeak, 2016ko otsailaren 10an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Guardia Zibilari eta beste erakunde batzuei eska diezaion Gerra Zibilari eta frankismoari buruzko artxiboak irekitzeko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Honakoa du testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Guardia Zibilari eta beste era-

kunde publiko edo pribatu batzuei eska diezaion 1936ko uztailaren 18tik 1975eko azaroaren 20ra bitarteko aldiari buruzko artxiboetarako sarbidea ahalbidetu dezaten eta artxibo horiek ikertzaileen, senitartekoen, elkarten eta hala nahi duen ororen esku jar ditzaten, horrela betez azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoaren, 13. artikulua."

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Interneteko atari berri bat eraiki dezan, lurralde- eta hiri-plangintzari buruzko informazioa eskuratzea eta herritarren parte-hartzea erraztuko duena.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2016ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2015eko azaroaren 20ko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

